

OTSOA BABESTU, ABELTZAINZA ESTENTSIBOA LAGUNDU



LARRUN#313



ELKAR BIZITZA POSIBLE OTE DA?

EGILEA | JUNE FERNANDEZ

AZALA | IÑAKI LANDA

Obsesionatzen naute eztabaida polarizatuek. Kuba. Prostituzioa. Euskal gatazka politikoa. Nire konbikzioak zalantzan jartzen ditut behin eta berriro". Horrela hasi nuen "Aingeruak eta nes-kameak" nire saiakeraren hitzaurrea: haurdu-naldi subrogatuen meloia aletu nuen liburuan, ikuspegi feminista, disziplinartekotasuna eta pluralismoa ardatz. Horregatik erakarri nau otsoaren ehizaren inguruko eztabaidak.

XX. mendean desagertzeko arriskuan egon zen espeziea babesteko legeen kontrako erabaki politikoak hartu dira aurten Espainiako zein Frantziako estatuetan. Pasa den martxoan, Espainiako Diputatuen Kongresuan onartu zen Duero ibaiko iparraldeko otsoak babes berezia duten espezien zerrendatik ateratzea. Modu zalantzarik gabe batean ezarri dute neurria alder-

di eskuindarrek: elikagaiak alferrik ez galtze-ri lotutako lege berri batean sartuta. Ekainean Europar Batasuneko Kontseiluak behin betiko argi berdea eman zion otsoaren babes maila "zorrozki babestutik" "babestuta" jaisteari, eta aldaketa horretatik tiraka, irailean Frantziako Gobernuak iragarri du abeltzainei baimena emango diela otsoa tirokatzeko abereak defendatzeko helburuarekin.

Hedabideetan ohikoa da bi aldeen ikuspegia kontrajartzea: abeltzainena (ehizaren alde) eta ekologistena (ehizaren kontra). Ba al dago, ordea, animalien eskubideen aldeko abeltzainik? Ba al dago estentsiboan jarduten duten abeltzainen zaurgarritasuna aintzat hartzen duen ekologistarik? Posible da "alde/kontra" dikotomia horretatik harago joatea? Bilaketa horren ondorioa da monografiko hau.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2945 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAIALEN ARANA

2025eko abenduaren 28an

Otsoa errotuta egon da Euskal Herrian XIX. mendeko amaierara arte: orduan behera egin zuen populazioak, industrializazioak eta ehiztarien jazarpenak zokoratu. Nafarroan erabat desagertu zen XX. mendearen bukaeran. Ignacio Etxeberriak *El lobo en Navarra* [Otsoa Nafarroan] liburuan jaso du prozesua. XVII. eta XX. mendeen bitartean instituzioek ehiztarien jarduna saritzen zuten, otsoen ehizaren inguruan izugarrizko festak ospatzen ziren eta pozoia erabilera ere sustatu zen. Gizakien aurkako eraso bakan batzuek areagotu zuten animalia honen ospe txarra. 1981ean ehizatu zen azken otsoa Urbasan:

José Luis Garmendia izeneko ehiztariak 246.000 pezetetako (1.478 euro) saria jaso zuen. Edonola ere, *canis lupus*-aren pisua agerian uzten dute toponimoek: ots-, otx- eta gaztelaniazko *lobera* terminoa bilatuta, 300 toki izen topatu zituen Etxeberriak, *Naiz* hedabideko elkarrizketa batean azaldu duenez.

Euskal Autonomia Erkidegoan bi otso talde ugalkorren presentzia mantendu da, Burgos eta Kantabriarekin partekatuak. Eusko Jaurlaritzak 2020an aldatu zuen Espezie Mehatxatuen Katalogoa, *canis lupus* "interes bereziko espeziea" kategorian sartzeko: egitasmo horren ondorioz, otsoen errolda be-

rria abian jarri da eta aipatutako kudeaketa-plana idatzi da, informazio publikorako fasean dagoena. Txostenak helburu bikoitza adierazten du: *canis lupus* espeziea berreskuratzea eta abeltzaintzarekin koexistentzia ahalbidetzea.

Iaz ENBA Euskal Nekazarien Batasunak alegazioak aurkeztu zituzkion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari, planaren tramitazioa eteteko, proiektua "goitik behera" berregiteko eskariarekin. Ederne Begiristain kazetariak *Berria*-n laburbildu zuen ENBAren kexa: planak gutxietsi dituela otsoak abeltzaintzan eragiten dituen kalteak, eta enpatia eskasa adierazten duela.



2.903 abelburuk (gehien bat ardiek) pairatutako erasoak dokumentatu dira 2005-2024 artean, eta UAGA Arabako Nekazarien Elkartearen ikerketa baten arabera, horrek bi milioi euroko gainkostu ekonomikoa suposatu du abeltzaintzat, urtean 600-700 ordu es-tren baliokidea.

Karrantzako zenbait abeltzainek *off the record* berretsi digute ezine-gona: otsoen erasoak ugaritu direla eta indemnitazioak eskasak direla, ez bakarrik diru-kopuruagatik, bai-zik eta ez dituztelako kalte guztiak aintzat hartzen: esaterako, otsoaren erasoan korrika egiteagatik abortatutako arkumeak. Mastinak erabiltzeko gomendio instituzionalaren aurrean, adierazi dute ez dela erraza, ezta merkea ere, halako txakurrak mantentzea eta hezte. Hortaz, ehiza selektiboaren alde agertu dira.

Pasa den ekainean Euskadiko Otso Taldeak otso baten legez kanpoko hilketa salatu zuen Karrantzako Armañón Parkean. Komunikatu batean zabaldu zuten lekuko

testigantza: aurpegia estalita zuten bi gizonak ale handi bat hil zutela, ustez ar heldu bat, “haren gorpua atoi batean eraman zuten, eta suzko armekin mehatxatu zituzten eszenari argazkiak ateratzen saiatu ziren pertsonak”.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, otso italiarraren ale bakartien agerpenak piztu du alarma. Pasa den martxoan Lapurdiko Azkaine herrian otso bat agertu zenean, Euskal Herriko Laborarien Batasunak salatu zuen Pirinio Atlantikoetako Prefeturak ez duela onartu nahi “egoeraren larritasuna”, eta horrek abeltzainengan eragiten duen “eragin psikologiko larria”, ARGIAk orduan jaso zuenez. Nekazariek “harraparien aurrean beren tropa babesteko duten eskubidea” aldarrikatu zuen sindikatuak, administrazioak onartzen ez badu ere: legez kanpoko da otsoa hiltzea, hiru urteko kartzela zigorra eta 150.000 euroko isuna ekar ditzakeelarik.

Ekainean salbuespena onartu zuen Frantziako Gobernuak: abel-

tzainek otsoa akabatu zezaketen, aurreko hamabi hilabeteetan eraso bat frogatzen bazuten eta soilik behi eta zaldi taldeak babesteko. Esan bezala, European otsoaren babesa murriztu izanak ahalbidetu du Frantziako Gobernuak baimena ematea abeltzainei otsoaren kontra eskopetekin egiteko.

ESKOPETEN ALBO-KALTEAK

Arantza Susperregi biologoarengana jo dugu otsoak ekosistemetan duen balioa ulertzeko. Arabako Mendialdeko kuadrillan bizi da Susperregi eta Arabako Mendiak Aske lurraren defentsarako plataforma-rekin kolaboratzen du.

Piramide trofikoaren funtzionamendua azaldu digu: “Oinarrian kokatzen dira deskonposatzaileak eta lehen mailako ekoizleak (landare-ekoizleak). Hurrengo pisuan lehen mailako kontsumitzaileak ditugu: animalia belarjaleak. Ondoren, bigarren mailako kontsumitzaileak, haragijale omniboroak, hala nola azeria eta katamotza. Bada,



DANI BLANCO CC BY SA



DANI BLANCO CC BY SA

Mónica Meabe bere artaldearekin, Gibijoko mendilerroan.

otsoa dago erpinean, azken pieza da, hartza eta beste harrapari handiekin batera. Ez dute harraparik eta haien populazioa txikia da baldintza naturaletan. Estatus horren ondorioz, gaitasun handia du piramide trofikoan haren azpian dauden izaki bizidunen populazioak erregulatzeko: beste haragijale batzuk, belarjaleak eta, ondorioz, landareak ere bai.



**EHIZTARIEK LIDERRAK
DIREN OTSO AR ETA EMEAK
EHIZATZEN BADITUZTE, TALDEA
DESEGITURATUKO DA, ETA
EHIZTARI TREBEAK EZ DIREN
OTSO GAZTEEK ABEREENGANA
JOKO DUTE**

Adibide paradigmaticoa ekarri du gogora biologoak: AEBetako Yellowstone parkea. “Orain dela ehun urte otsoaren desagertzea dena aldatu zuen: belarjale handien populazioa hazi zen ez zutelako harraparik, eta ondorioz, landare-espezieek presio handia jasan zuten. Horrek paisaia aldatu zuen, bioaniztasuna kaltetu eta ibaien ibilbidea aldatu”. Bada, pasa den mendeko 1990eko hamarkadan otsoa berriro sartu zutenean, eragina ikusgarria izan zen: “Kaskada efektu bat eman zen eta paisaiak hasierako egoera berreskuratu zuen: naturak duen botere birsortzailea itzela dela ikusi zen”, azpimarratu du.

Alabaina, Euskal Herria ez da Yellowstone, eremu oso antropizatua baizik, eta gizakiaren jarduerak eragin handia daukate ekosistemen orekan. Hala, gizakia naturaguneak kolonizatzen joan zen heinean, otsoa mendialdean kantonatu zen. Ondorioz, *canis lupus*-ak ekosisteman funtzio balioitsu bat betetzen bazuen ere, bere presentzia gatazkatsua bilakatu zen abeltzaintzat.

Izan ere, otsoek taldean ehizatzen dituzte basoko piztiak, liderrak diren ar eta eme ugalkorrek gidatuta. Ehiztariak bietako bat akabatzen badute, taldea desegituratuko da, eta ehiztari trebeak ez diren otso gazteek aberreengana joko dute. Horrez gain, nekazaritzari kalte egiten dion ondorio bat ere badakar otsoen faltak: basurde, orkatz, orein eta untzien eztanda.

Ildo horretatik, zalantzan jarri du ehiztariak trebakuntza nahikoa duten espezie honen kontrol egokia egiteko. Basurdeen kasua aipatu du: “Ehiztariak basurde eme handia ehizatzen dutenean, eragiten dute eme gaztea aldeztu aurretik araldian sartzea eta, hortaz, eme ugalkor gehiago egongo dira”.

Ehizaren aurreko irakurketa ekofeminista egin du biologo honek: “Gizakiaren esku-hartzea oso kontzeptu antropozentrikoa da, oso maskulinoa ere bai agian. Gizon ehiztariak bere burua ikusten du inguruaren kudeatzaile gisa, eta natura menderatzeko eta kontrolatzeko jarrerara dauka, elkarbizitzan, errespetuan eta kolaborazioan ardaztutako jarrera baino”.

Gauzak horrela, abeltzaintza estentsiboa babesteko prebentzio neurrietan azpimarra jartzeko deia egin du biologoak, baita otsoen erasoaren aurreko indemnizazioak bizkortzea aldarrikatu ere. Horrez gain, ideia berritzaileak ekarri dizkigu. Alde batetik, Galiziako Casa Xancedaren esperientzia gomendatu digu, mastin txakurrak eta hesiturak as-toekin konbinatzea otsoa uxatzeko. Bestetik, abeltzaintzat otsoak dakarren zailtasuna aitortzeko modu bat iradoki du: haien produktuentzat ziurtagiri bat sortzea, hartza dagoen eremuetan eztiarekin egiten den bezala, marka horien balioa goraipatzeko. Herritarron ohitura aldaketa bat ere gomen-datu du: okela gutxiago kontsumitzea, kalitate onekoa, abeltzaintza estentsibokoa.

Azkenik, nabarmendu du Euskal Herria leku estrategikoa dela, eta korridore ekologiko baliotsua izan daitekeela: “Otsoaren presentziak poza eragin beharko luke, ondo egituratutako habitat baten orekaren ikurra delako. Otso iberikoaren arrisku handienetakoak dira populazio txikia eta isolamenduaren ondoriozko endogamia. Kantauri isurialdeko otsoaren eta Pirinioetakoaren artean truke genetiko bat gerta liteke, espezieari mesede egingo liokeena”.

ABELTZAINEKIKO ENPATIA

Baso-ingeniarria da Markel Arriolabengoa Martiarena, eta basabizitza du pasio: *Bidaia bat hartzaaren atzetik* kronika oparitu digu aurtengo GAKOAKen. Aramaion jaio zen, Gasteizen bizi da eta, kaletarra bada ere, harreman handia dauka baserritarrekin. Hala, ikuspegi eko-



GALIZIAKO CASA XANCEDAREN ESPERIENTZIA GOMENDATU DIGU ARANTZA SUSPERREGI BIOLOGOAK, MASTIN TXAKURRAK ETA HESITURAK ASTOEKIN KONBINATZEA OTSOA UXATZECO



DOMEINU PUBLIKOA

logista lehen sektoreko langileen kezkekin uztartzeko gai da: “Euskal Herriko zenbait lekutan urte asko eman dituzte otsoa ezagutu gabe. Abeltzaintza eta artzainen ohiturak garatu dira mehatxu hori gabe. Azken urteetan zabalduz doa otsoa, eta nabaritzen da tentsioa landa gunean. Abeltzainen ardura ulergarria da. Mehatxu berria da zenbaitentzat, eta otsoa kalte handia sortzeko gai da”.

Gauzak horrela, egokitzapen une batean gaudela uste du, eta fase horretan abeltzainekiko enpatia ezinbestekoa iruditzen zaio, baita bestelako eragile sozialen inplikazioa ere. “Otsoa babestu nahi dut, oso es-

pezie garrantzitsua da ekosistemen orekarako, baina kontziente naiz konplexua dela. Ez du balio esatea baserritarrak egokitu daitezela, ez daitezela kexatu”.

Ildo horretatik, ez zaio bidezkoa iruditzen azpimarra jartzeko artzainen presentzia eskasean: “Nik zortzi orduko lanaldia dut. Baserritarra aztoratzen da eskatzen zaionean abereak bakarrik ez uzteko, eta normala da. Zer egin behar du, 24 ordu haiekin pasa, duela ehun urte bezala? Lan baldintza duinak unibertsalak izan behar dira. Inkontzienteki

landa guneko postal idiliko horren aitzakiapean presio handia eragiten diegu lehen sektoreko langile batzuei. Lehenengo sektorea zaintzeko momentua da. Eta honekin ez dut esan nahi abeltzainek beti arrazoi dutenik, baizik eta irtenbideak elkarrekin bilatu behar ditugula”.

Hortaz, otsoak dakartzan zeharkako balioak sustatu nahi badira, aldarrikatu du beharrezkoa dela guztion inplikazioa: “Guk nahi baldin badugu paisaia hori izan

eta otsoa mantendu, izan gaitezen erantzule; gure lantokiek, aisialdi esparruek eta autobusek ere finantziario publikoa daukate. Bideratu dezagun behar beste baliabide oreka hori posible izan dadin. Elkar ulertzeko nahi batetik”.

Familia ehiztaria du Markelek: “Ni ere ehiztaria izan nintzen 20 urte bete arte, gero arbuiatu eta orain oreka bilatzen”. Bere esanetan, ehiza tresna bat izan daiteke, fauna komunitatean eta landa eremuan sortutako arazoei erantzuteko, baina modu oso planifikatuan bideratzen bada, ondo egiten bada, eraginak ondo neurtuta, hezkuntza sustatuta. Alabaina, ehiztarien

Artzain zaindarien programa pilotua Araban

Gibijo eta Bagerro mendilerroetan otsoek abeltzainei eragindako kalte larrien aurrean, Arabako Foru Aldundiak programa pilotu bat abian jarri zuen 2022an, Enrique Arberas Mendibil biologoak koordinatutakoa, ardi latxak babesteko. Bi neurri nagusiak izan ziren artaldeak gordetzeko bordak sortzea eta artzain zaindariai kontratatzea abeltzainak laguntzeko, baita programa koordinatu duen teknikaria ere. Nafarroan, Gaztela Leonen eta Katalunian ez bezala, artzain zaindarien programa bat abian jartzen den lehen aldia da EAEn.

Langileen eginkizunak dira, alde batetik, artaldeak zaintzea, gdatzea eta batzea, eta bestetik, otsoen

presentzia antzematea. Artzainek zortzi orduko lanaldia egiten dute astegunetan. Iluntzean, mastinek zaindutako bordan gordetzen dituzte abereak. Egitasmoaren arrakasta frogatzen dute 2023-2024ko neguko lau hilabeteetan bi eraso bakarrik gertatu zirela, artzainak presente ez zeuden momentuetan.

Denboraldi horretako txostenak programaren onurak identifikatu ditu hainbat alorretan: ingurumenean, artaldearen ongizatean, errentagarritasunean (eraso gutxiago eta, mendian denbora gehiago emateari esker, pentsuan eta bazka lehorrean gastu gutxiago), abeltzainen kontziliazioan eta osasun psikologikoan, eta eremu hauetan abeltzaintza- eta artzaintza-sektoreak indartzeko bidean. Otsoarekin koexistentzia posible dela frogatu dutela defendatu dute arduradunek hedabideetan.

munduan eragiteko zailtasunak antzeman ditu: “Bereziki zaila da kudeatzen, oso maskulinitate zehatz batek parte hartzen du”.

EZINTASUN LATZA

Otsoaren Kudeaketa Planaren Jarraipen Batzordean elkartzen dira Arabako Foru Aldundiko ordezkariak, elkarte ekologistak eta abeltzainak. Administrazioak bi tresna eskaini ditu abeltzainei laguntzeko: prebentzio neurriak ezartzeko diru-laguntzak eta Ingurumen Zerbitzuen arabarako Ordainketa, otsoen presentziako eremuetan artzaintza-jardunbide egokiak saritzen dituen. WWF Naturaren Mundu Funtsa elkarte ekologistak txalotu du Arabako abeltzainek jasotzen duten aholkularitza tekniko eta artzainen programa pilotua.

400 latxa ardi ditu Mónica Meabek Gibijo mendilerroan (Araba) eta dozena bat mastinek babesten du artaldea. Gastu eta esfortzu handia suposatzen du hainbeste txakur hezi eta mantentzea, baina merezi dio, kontuan izanda otsoak erraztasun handia duela bere lursailetan sartzeko. 90-100 abere galdu ditu

azken urteotan: “Lehenengo erasoan 16 bat ardi agertu ziren zaurituta edo hilda, eta bakar bat jan zuen otsoak. Batzuk salbatu nituen, beste batzuk azkenean hil egin ziren, bakterien erruz. Ezintasun latza sentitu nuen”.

ATACA Trebiñu eta Arabako landa eremuen aldeko elkartera jo zuen Meabek, administrazioari kontuak eskatzeko: “Akordioa izan zen eraso bakoitza hiru hilabete epean ordainduko zutela, eta ez zuten bete. E-mail asko bidali ondoren, urtebete pasata ordaindu zidaten, eta soilik momentuko heriotzak. Esan dute hasiko direla abortuak ordaintzen, baina ikusi arte ez dut sinetsiko”.

Abeltzain honek ez du artzainen programa pilotuan izena eman: “Ondo deritzot aukera hori eskaintzeari, baina ni ez nintzateke lasai geratuko; nahiago dut ni neu egotea artaldearekin. Egunsentian ilun dagoenean noa larrera eta iluntzean berandu bueltatzen naiz”. Bere esanetan, programan lan egiten duten artzainak kanpokoak dira, ez dituzte bertoko mendiak nahikoa ezagutzen eta ez dute prestakuntza nahikorik jasotzen. Itxituren kon-

ponbidea ere zalantzan jarri du: “Estentsiboan funtzionatzen duzunean, larrea hesitzea kondena bat da abereentzat, eta abeltzaintza estentsiboak onura handia egiten dio mendiari suteak saihesteko”.

Gauzak horrela, ehiza selektiboa baimentzea aldarrikatu du, izan abeltzainen eskuetan utzita edo otsoaren etologian adituak diren profesionalak kudeatuta. “Txikia nintzenean otsoaren uxaldiak antolatzen ziren. Helburua ez zen espeziea desagertzea, bazekiten katebegi baliotsua zela, baizik eta kalteak eragiten zituzten animaliak kentzea. Orduan, eraso bat izan ahal zenuen noizbait, baina zorte txarra zen, ez errutina”.

Edonola ere, Frantzian bezala otsoaren erasoaren aurrean defentsa baimentzea ez da Mónicaen aldarrikapen bakarra: “Mendia oso zikin dago, orduan ardiak gehiago hedatzen dira eta txakurrek ez dute artalde osoa ondo ikusten. Nire zonaldeko sastrakak garbitzeko eskaera egin nion administrazioari, erantzun zuten haiek Arabako Batzar Nagusiei zuzendu behar zirela eskaera, eta ez dute egin”.

Jendartearen ardura ere nabarmendu du abeltzaintza estentsiboa errespetatzeko. Mastinek pertsoneri eraso egitearen ospe txarra hartu dute Nerbioiko ur-jauzira joandako bisitariren bati koska egiteagatik. Txakurren lana defendatu du Mónica: “Kartelek argi adierazten dute 20 metroko distantzia gorde behar dutela eta bizikletatik jaitsi. Askok ez dute betetzen, oihuka dabilta, eta hala mastinak urduritzen dira”.

ETXE APROPOS BAT OTSOARENTZAT

“Elkarbizitza ezin da eman: otsoak jaten du ardia”. Tinko agertu da Amets Ladislao, EHNE Bizkaia eta Etxaldeko Emakumeak elkarteak kidea. Amorrur handia ematen dio otsoa babesteko ikerketak “hiritik” etortzen direla, abeltzainei zuzenduak “pulpitu batetik”: “Ez dute mendia ukitzen, ez dakite zer den artalde bat zaintzea, zer harreman eta maitasuna daukagun animaliekin. Ez dira bakarrik hilketak. Otsoa sumatzen duen artaldea ez dago lasai, ez dago osasuntsu”.

Markelek aipatutako exigentzia sentipena adierazi du: “Hiritik exijitzen digute lana laukoiztea: animaliak gauero sartzea bordan... Baina gure sektoreko tonua ere ez dugu gustuko: otsoa etsai gisa aurkeztea. Guk otsoa maite dugu, ez dugu uste desagertu behar denik. Hedabideetatik agertzen diren bi jarrera horiek ez doaz bat gurekin: superbilogoak ehiztari-abeltzain atzerakoien kontra, bakoitza bere teoria botatzen. Hasi behar dugu denok, aktore guztiak, bestelako jarrera batekin elkartzen: ez arrazoiak daukagula esateko, baizik eta zelan konponduko dugun aztertzeke”. Zentzu horretan, Odile Rodríguez de la Fuenteren (Felix, naturalista eta etologo mediatikoaren alaba) fundazioak egiten duen lan “diskretua” goraipatu du.

Etxaldeko Emakumeen irakurketa ekofeministak fokua aldatzea



“OTSO IBERIKOAREN ARRISKU HANDIENETAKOA DA POPULAZIO TXIKIA ETA ISOLAMENDUAREN ONDORIOZKO ENDOGAMIA. KANTAUARI ISURIALDEKO OTSOAREN ETA PIRINIOETAKOAREN ARTEAN TRUKE GENETIKO BAT GERTA LITEKE, ESPEZIEARI MESEDE EGINGO LIOKEENA”

ARANTZA SUSPERREGI



Mónica bere mastinekin

dakar: “Euskal Herrian gure eremua oso txikia da, oso industrializatu dago; otsoaren lehenengo etsaia berez hiria da, ez du lekuri gurean, eta ez da abeltzaintzagatik. Fokalizatu da dena artzainengan, baina otsoaren lurraldea industrializazioak eta eremu urbanoaren hedapenak apurtu dute. Autobideek eta abiadura handiko trenen proiektuek apurtu dituzte otsoaren korri-

doreak. Artzain batzuk planteatzen hasi dira egin beharko liratekeela erreserba natural handiago batzuk Europan, adibidez Alemaniako Oihan Beltza aipatzen da. Onartu behar dugu gure eremu naturalak suntsitu ditugula”.

Bitartean, “teknologian inbertitzea” proposatu dute Etxaldeko Emakumeek neurri eraginkorrak azkar txertatzeko: “Aztertu behar da posible den artzaintza birtualaren bidez otsoak ere markatzea eta ez uztea artaldera hurbiltzen. Frantziako Estatuan otso arren feromonak botatzen dituzte artaldeak dauden mugetan, otso alfekek muga hori pasa ez dezaten”. Edonola ere, estrategia esperimentalak martxan jartzen diren bitartean, ehiza kontrolatu baten alde egin dute. Zentzu horretan, zalantzan jarri du Susperregi bezalako biologoen diskurtsoa, alegia, otso talde egituratuak ez dituztela abereak erasotzen: “Animalia oso azkarra da otsoa, errazagoa egiten zaio artaldearen kontra egitea”.

Eta zer abeltzain motari eragiten dio erasoak? Emakumeei gehien bat. “Gure gizarteratzeagatik aukeratzen ditugu eredu agroekologikoagoak. Otsoak eragiten die abeltzaintza estentsiboei, ez makroetxaldeei. NPB Nekazaritza Politika Bateratuaren laguntzen onuradurak esplotazio handiak dira; gure eredu defenda-tzen dugun ia guztiak kanpo gertatzen gara. Gu NPB feminista baterako proposamena ehuntzen gabilta Europa mailan”.

VOXek ageriko instrumentalizazioa egin du gai honen aurrean, abeltzainen interesak defendatzen dituen alderdi politiko bakar gisa aurkeztuz. VOXez gain, EAJk, UPNk eta Juntsek bozkatu zuten PPren neurriaren alde, Diputatuen Kongresuan otsoa LESPREtik ateratzeko. Orduan, ENBAk “txalotu” zuen EAJko eta PPko diputatuen apustua eta, PSOEko eta Sumareko diputatuen ezezko botoak “salatu” zituen,

DANI BLANCO CC BY SA

Otsoaren etologia

Habitata: Behar adina elikadura-baliabide dituen eta jazarpenik jasaten ez duena; ahal dela, landare-estaldura handiko inguruneak behar ditu.

Ehiza ohitura: Ingurune humanizatueta, otsoek gauez egiten dute beren jardueraren zatirik handiena, elikadura-lekuetara joatea barne. Eguna gordelekuan etzanda ematen dute, baina hain arraroa ere ez da egun argiz batetik bestera ibiltzea, batez ere sakabanatze-fasean dauden otso gazteak edo heldu alderraiak badira, edo uda garaian bada. Otsoku-

meak hazten diren bitartean, emeak batez ere egunez mugitzen dira.

Talde-funtzionamendua: Otso-taldeak familiak izaten dira eta talde bakoitzaren barruan hierarkia handia dago. Normalean, ar eta eme nagusiak baizik ez dira ugaltzen (alfa bikotea). Taldea hazi eta handiegia egiten denean, heldugabeak edo heldu subordinatuak kanporatuak izaten dira: ale periferikoak deitutakoak. Bestalde, ale flotatzaileak dira beste talde batean integratzeko hutsunerik edo kokaleku egokirik aurkitzen ez duten otso sakabanatuak.

(Iturria: Eusko Jaurlaritzaren diagnostikoa)

baita EH Bilduko diputatuen abstentzioa ere, "berezi mingarria, Euskadiko bigarren alderditik datorrelako eta euskal nekazari munduan hain presentzia handia duena, abstentzioan ezkutatzea erabaki duelako eta abeltzaintza estentsiboa babesik gabe utzi duelako", ARGIAk jaso zuenez.

Ametsen ustez, "lotsagarria da EAJri eskerrak ematea": "Alderdi hori ez dago guk defendatzen dugun ereduaren alde. Babesgabe-tasun horrek ematen dizu gogoia amore emateko. Sentitzen dugu desagertuko garela, zer eta jendeari elikagai osasuntsuak eskaintzen eta sistema aldatu nahian gabiltzarako", deitoratu du. Hortaz, polarizazioa eta erabilpen politikoak atzera utzi eta eztabaida diskretu eta sosegatua aldarrikatu du: "Saiatuko gara eskuzabalak izaten konbergentziak bilatzeko".

HAUSNARKETAN SAKONTZEN

Maitane deituko dugu hurrengo elkarrizketatua. Artzaina da Gipuzkoan, eta ezizen bat erabiltzea eskatu du, inguruko abeltzainekin arazoak saihesteko. Fernando Valladares biologoaren podcastari esker ulertu du otsoaren etologia eta ehizaren albo-kalteak: "Mesede egiten ari direlakoan, kalte egiten dute. Erauzketak egin ahal izateko, otso taldearen barne dinamika oso ondo

ezagutu behar da, definitzeko zein den buruzagia... Gai honetan oso formazio gutxi dago, nigandik hasita. Nire beldur eta ezjakintasunaren jabe egiten naiz". Hala ere, abeltzainen eta otsoen arteko bizikidetzaren ahalbidetzeko neurriak indartzearen aldekoa da: "Nik ez dut neure gain hartu nahi espezie baten desagertzea. Baina argi dut jendarte honek baliabideak jarri behar dituela, baita gizakion biziraupenerako ere".

Otsoaren presentziak suposatzen duen erronka modu isolatuan landu baino, irakurketa zabalagoa proposatu du: "Hau kendu, hau sartu, kaosa sortu dugu naturan eta ondorioak pairatuko ditugu. Jendarte bezala erabaki behar dugu nola bizi nahi dugun, zer paisaia nahi dugun, zer jan nahi dugun: Eusko Jaurlaritzak bultzatuko duen laborategiko haragia? Asko dugu erabakitze komunitate bezala, eta erakunde publikoen papera funtsezkoa da. Otsoa ehizatzea erabakitzen badugu, zer baliabide jarriko ditugu hilko ez dituen espezieek eragingo duten birus eta bestelako gaitzen transmisioaren aurrean? Eta otsoa ez ehizatzea erabakitzen badugu, zer lanketa egingo dugu abeltzainekin? Eta zein da basozainen papera? Oso gutxiesiak daude!".

Iruditzen zaio otsoa abeltzainen arazo nagusi moduan aurkeztu baino, azpimarra lehen sektorea

arriskuan jartzen duten politika publikoak salatzean jarri behar dela: "Erabaki politikoak ez doaz nekazaritza eta abeltzaintza ekologikora bideratuak, herritar guzti-guztiek osasungarri jateko eskubidearen alde, baizik eta sistema industrial batera: zenbat eta pabiloi handiagoa eta kanpoko pentsu gehiago, gero eta eraginkorrago. Errazagoa da errua botatzea ekologistei eta kaltetarrei, baina diru publikoa nora bideratzen da? Ez dago inolako gupidarik abiadura handiko trenak abeltzaintza eremuak suntsitzeko orduan, okela sintetikoa edo *indoor farming*-a sustatu aldera".

Ehiza selektibo zuhurra egiteko baldintzak zalantzan jarri ditu Maitanek: "Nire sentsazioa da ehiztariak ezagutzatik baino testosteronatik abiatzen direla. Ez dut uste jarduera zinegetiko programatu bat dagoenik. Ehiztarien artean oso gutxi dira ekosistemen inguruko ezagutzak dituzten pertsonak". Edonola ere, prest dago Maitane bere aurreiritziak berrikusteko eta Ametsek defendatutako eztabaida sosegatuan parte hartzeko: "Beste gai askorekin gertatzen den bezala, muturreko planteamenduak eta gorrotoz beteriko diskurtsoak baino, izan dezagun eztabaida zentzuduna, epe luze eta ertainean emankorra izango dena. Arazoa ez da soilik teknikoa, humanoa baizik".

ESPAINIAKO ESTATUKO ESPERIENTZIAK

AHUNTZAK, ASTOAK

ETA MASTINAK

Datu ofizialek argi erakusten dute otsoen zabalkundea Espainiako Estatuan, biologoek eskertu eta abeltzainek kezka bizi dutena. 370-380 otso taldeetatik gehienak Gaztela-Leon, Galizia, Asturias eta Kantabriako erkidegoetan

bizi dira, eta horietan guztietan %17 eta %60 bitarteko aleen igoera dokumentatu da. Gaztela-Leoneko abeltzainak dira eraso gehien salatu dituztenak: 2022an hiru mila bat eraso izan ziren bost mila abereren kontra; aurreko urtean baino %19 gehiago.

Zonalde horiez gain, *canis lupus*-a zabaldu da Gaztela-La Mancha eta Madrilera ere. Ekialderantz, Errioxa da otso iberikoaren muga: lau talde bizi dira bertan. Aldiz, Aragoi eta Katalunian agertu diren ale bakartien jatorria italiarra omen da. Andaluziako Sierra Morena mendikatea izan da historikoki kanido basatien beste bizilekua, baina endogamiaren erruz, espezieak ez du aurrera egin. 2010etik aurrera abeltzainek ez dute antzeman otsoen erasorik. Extremaduran ez dago otsorik, ez badira Avila eta Portugaleko mugak gaintzen dituzten ale bakartiak.



**“KALTEAK MURRIZTEKO,
OTSOEN %50A BAINO
GEHIAGO HIL BEHARKO
GENITUZKE, ETA ERABAKI
HORI ESPEZIEAREN
KONTSEBAZIOAREN
KONTRAKOA IZANGO
LITZATEKE”**

JUAN ANGEL DE LA TORRE



Galiziako Casa Grande De Xancedan astoak erabiltzen dituzte otsoak uxatzen laguntzeko.

Burgos: ahuntzak eta mastinak

Elena Galanengana jo dugu, bere lanbide-profil bikoitzak erakarrira: nekazaritza- eta abeltzaintza-gaiak ikertzen ditu bioaniztasunaren ikuspegitik, eta artzaina ere bada; egun, Gorobelen dihardu ahuntzekin, Burgosko aldean, Villaña herrian. Jatorriz Bartzelonakoa bada ere, Euskal Artzain Eskolan prestatu zen. Hor ezagutu zituen bi lagunekin jarri du martxan bere proiektua; haietako batek iradoki zuen Villaña, aita bertokoa duelako.

Marra gorri bat adierazi digu: ez du iritzirik emango teoriatik, ez du jardungo bere gorputzak bizi ez dituen errealtateei buruz. “Nik ez dut inoiz otso baten erasorik bizi, eta espero dut sekula ez bizitzea. Nire zonaldean badaude otsoak, eta nire kooperatibako kideek bai jaso izan dituzte erasoak; eraso batek 40 baja eragin zituen eta horren ondorioz negozio-eredu guztia eraldatu behar izan zuten, ardiak utzi eta ahuntzekin hasi”.

Ez badu esperientzia zuzenik ez da, ordea, otsorik gabeko gune batean diharduelako, baizik eta prebentzio-neurriek oraingoz funtzionatu dutelako. Hasteko, kontuan hartu zuten auzokoen esperientzia: “Otsoaren erasoa pairatu

zuten duela 20 urte. Udan ganadua bakarrik uzten zuten mendian, hemen ez dugulako bordarik. Oso desatsegina da ardiak topatzea trakeak zulatuta: itota hil ziren pixkanaka, errematea eman behar izan zieten askori... Orduan, ahuntzak jartzea erabaki zuten, ardiek baino esne gehiago ekoizten dutelako eta lursaila hobeto aprobetxatzen dutelako; hortaz, gazta ekoizteko orduan errentagarritasun handiagoa eskaintzen dute”.

Erabaki zuhur hori hartzeaz gain, hiru ardatz dituen jokabidea erroto zuten Elena eta bere kideek: “Ahuntzak inoiz ez dira mendira bakarrik igotzen; artzain lana egingo duen gutariko batek laguntzen ditu beti. Bigarren neurria da beti etxean lo egingo dutela, edo Guantanamokoa moduko hesitura duen gertuko lursail batean; hor ezinezkoa da inor sartzea edo ateratzea. Hirugarren neurria mastinak dira”.

Oinarrizko azalpen bat eman digu mastinei buruz: “Artzain txakurrekiko diferentzia da abereekin bakarrik geratzen dela artzaina ez dagoenean”. Onartu du oso zaila dela txakur erraldoi hauek heztea, bakarra ez dela nahikoa abere saldo bat babesteko, eta bat baino gehiago izanez gero, gatazkak di-

tuztela maiz haien artean. Halaber, gaineratu du otsoaren desagertzearen ondorioz hari aurre egiteko gaitasuna zuen mastin mota ere desagertzeko bidean egon dela: “Bestelako mastin mota bat hedatu delako, lodiagoa, ez hain bizkorra, edertasun lehiaketei begira hazten dena”. Ondorioz, zaindaria lana ondo egingo duten txakurrak bermatzeko, Perros de los hierros Zamorako elkartera jo zuten.

Perros de los hierros elkartean gain, Enrique Agustín Sesek La Pastoral Pyrénéenne elkartean egiten duen lana goraipatu du: “Huescakoa da Sese baina Frantziako Pirinioetan lan egiten du. Pirinioetako mendi mastinen jarraipena eskaintzen die abeltzainei, erasoen aurrean nola jokatu duten ikusteko, jendearekin oldarkorrak diren... Harraparietan eta zaintza-txakurretan prestakuntza espezifikoak duten laguntza-artzainak ere badituzte. Elkarte horrekin harremanetan dauden abeltzainei artzaintzarako laguntza eskaintzen diete erasoei aurre egiteko, beti ere prebentzio-neurri guztiak bete badituzte”.

Elenari zor diogu LARRUN hau ehuntzeko ezinbestekoak ditugun beste bi erreferentzia eman dizkigula: Arabako Foru Aldundiaren artzainen programa pilotua eta Espainiako Emakume abeltzainen podcasta.

Espainiako Artemisan fundazioak bildu ditu datu horiek txosten batean. Sektore zinegetikoaren defentsan dihardu Artemisan-ek, bioaniztasunaren aldeko diskurtsoarekin. Otso iberikoaren kontserbazioaren alde agertu da fundazioa, eta ekosistemetan duen super-harrapariaren funtzioa baloratzen du, baina “abeltzaintza estentsiboarekin ba-

teragarriak izango diren dentsitateak” bermatzeko defendatzen du. Otsoek espezie zinegetikoengan duten eraginari buruzko datu ofizialik ez dagoen arren, gaineratu du Lugoko Ancares portuan orkatzen desagertzea eragin dezaketela, eta Gredosko erreserba nazionalen basahuntzena. Hala, argudio horrekin aurkeztu du ehiza selektiboa, abe-

reez gain basoko animaliak ere babesteko tresna gisa.

Juan Angel de la Torre Burgosko biologo naturalistak erabat ukatzen du sektore zinegetikoaren planteamendua. Arantza Susperregik Euskal Herriari buruzko piezan bezala, piramide trofikoari buruz hitz egin digu, baita Yellowstoneko adibide paradigmaticoa ekarri ere: “Eko-

sistemaren sostengua da otsoa, ozeanoetan marrazoa nola. Ez du kanpoko erregulaziorik behar, ez du hazkunde amaigaberik, presa kopuruaren arabera erregulatzen baita”.

Otsoa kontrolatzeko planen ondorioa da taldeak desegonkortzea eta, hortaz, ale bakartiek abereengana jotzea. Ezkutuko ehiztarien papera nabarmendu du Juan Angelek desegonkortze dinamika horretan. “Kalteak murrizteko, otsoen %50a baino gehiago hil beharko genituzke, eta erabaki hori espeziearen kontserbazioaren kontrakoa izango litzateke”, baieztatu du.

Gauzak horrela, azpimarra jarri du artzainen ohiturak berreskuratzean: ganadua gorde, mastinak erabili (dozena erdi artalde bat babes-teko), artzain elektrikoak baliatu, abereak jarraitzeko GPS sistemak indartu... “Gure mezua zera da: dirulaguntzen bidez erraztutako neurri prebentibo guztiak hartu baldin

badituzu eta, hala ere, kalteak baldin badituzu, administrazioak erantzukizun subsidiarioa hartu beharko du”. Hala, gogoratu du abeltzainek Nekazaritza Politika Bateratuko laguntzak kobratzen dituztela, baina onartu du Europar Batasunaren dirulaguntza hori ez dagoela ondo diseinatuta, onuradun nagusiak esplotazio handiak direlako.

Ehiza selektiboaren aurka argudiatu du ehiztarien profilaren kontzientzia falta: “Nire eskualdean ehiztariak Miguel Delibes idazlearen tankerakoak ziren arestian: gizon bakartiak, landuak, mendia ibiltzen zutenak eperrak ehizatzeke, haien pointer txakurrarekin. Gaur egun, ordea, 10-20 tipo hipermatxisten kuadrillak topatzen dituzu harkaitzetan eserita haien walkie-talkie eta errifle garestiekin. Pistola-ehiza ez da selektiboa”.

Juan Angelen apustua da lehenengo sektorea bioaniztasunean



“ABELTZAINZA ESTENTSIBOA DA GUREA, LURSAIL OSO MALKARTSUETAN. 150-200 BEHI DITUEN ABELTZAINAK EZIN DITU GAUERO MENDIAN BILATU ETA GORDE”

OMAR RODRÍGUEZ

trebatzea, otsoekin elkar bizitzea lortu duten abeltzainak erreferente moduan aurkeztuta. Eta, horretarako, otsoaren defendatzaileak kale-tarrak diren aurreiritzia ukatu du: “Ni Villarcayokoa (Burgos) naiz eta hamabi biztanleko herri batean bizi naiz. Ardien eta behien usaina darit”.

Bere diskurtsoak erabateko talka

DANI BLANCO CC BY SA



Elena Galán Burgosko mendietan, bere ahuntz taldea eta mastinekin.

Lugo: “Frogatu dugu badaudela elkarbizitzarako sistemak”

2008an otsoen eraso latzei aurre egin behar izan zieten Casa Xanceda kooperatibako langileek. “Hamabi behi hil zizkiguten eta, horrez gain, taldean sortu zuten estresak abortuak eragin zituen eta esne ekoizpenaren gain-behera dramatikoak ekarri zuen”, nabarmendu du Sara Torreirok, kooperatiba horren komunikazio arduradunak. Otsoaren bizirau-penaren aldeko elkarteengana jo zuten aholkularitza eske, eta hurrengo bi neurriak gomendatu zizkieten: mastinak adoptatzea eta haien belardia hiru metroko altuerako hesiekin ixtea. Gerora, Casa Xancedako zuzendariak ideia berritzaile bat ekarri zuen: Nami-bian boluntario ibilia zen, eta han ikasi zuen asto eme gazteak erabiltzen zituztela abereak leopardo eta gepardoaren erasoaren aurrean babesteko: “Otso iberikoaren elkarteari galdetu genion ea sistema hori aplikagarria iruditzen zitzaien, eta baietza eman ziguten”.

Astoek mastinek baino lehenago detektatzen dute harraparia. Eguna bada, abisua emango dute arrantzen bidez, langileak hurbildu ahal izateko. Gaua baldin bada eta animaliak bakarrik baldin badaude, astoaren abisuak behi eta

txakurrei lagunduko die erasoaren aurrean antolatu eta indartsuago agertzeko. Izan ere, astoek lagundu dezakete otsoak uxatzen eta saia daitezke koska egiten, baina gutxienez bi mastin izatea ezinbestekoa da defentsa arrakastatsua izateko. Suitzako Alpeetan ere baliatu da praktika hau, ganadua otsoen aurrean babestean gain, desagertzeko arriskuan egon den beste espezie bat ere babes-ten duelako: astoa.



“ASTOEK LAGUNDU DEZAKETE OTSOAK UXATZEN ETA SAIA DAITEZKE KOSKA EGITEN, BAINA GUTXIENEZ BI MASTIN IZATEA EZINBESTEKOA DA DEFENSA ARRAKASTATSUA IZATEKO”

SARA TORREIRO

Neurri horiek ezarri dituzte-netik otsoak inguruan ikusi badi-tuzte ere, ez dute erasorik egin.

“Ez dugu ezeren eredu izan nahi, baina frogatu dugu badaudela elkarbizitzarako sistemak”, nabarmendu du Torreirok. Casa Xancedaren webgunean aipatzen dute esperientzia hori haien erantzukizun sozial korporatiboaren ildo gisa, zeina ingurumenaren, garapen iraunkorraren eta animalien ongizatearen aldeko konpromisoan datzan. “Ez da greenwashing, konpromiso zintzoa baizik”, aldarrikatu du Sarak. Konfirmatu du otsoaren presentziak basurdeen populazioa murriztu duela.

Kooperatibako bazkide gehienak emakumeak dira eta ez dute ehizarekin bat egiten. Bestelako animaliekin ere saiatzen dira errespetuzko irtenbideak topatzen: “Xoxo batek gure oiloen arrautzak lapurtzen ditu. Bada, gure lehenengo saiakera izan da atetxo bat jartzea oilotegian, baina ikasi du sartzen. Orain arrautza faltsuekin probatzen gaude. Bioaniztasuna sustatzen dugu gure laborantzen polinizazioa errazteko; txorientzako aterpeetan eta erlauntzetan inbertitzen dugu”. Gastu horiek guztiak epe laburrean errentagarriak ez badi-ra ere, Sarak baieztatu du enpresak ezinbesteko arduratzat dituela. Edonola ere, otsoaren aurreko neurriak hartzeko dirulaguntza malguagoak eskatu ditu eta onartu du haien metodoa esplotazio txikientzat dela bideragarria.

egiten du Maraña (Leon) udalerriko alkatearen errelatoarekin. Omar Rodríguez Bulnes PSOEko alkatea izateaz gain, abereak ere baditu. “Etengabeko erasoak pairatzen ditugu. Ez dakit abeltzainek nola jasaten duten egoera. Moxalak nituen bi hilabetez etxean gordeta, askatzeko beldur nintzelako. Askatu nituen gau horretan bertan hil zituzten

otsoek. Dena suntsitzen dute. Hartzak ere bizi dira Maraña inguruan, baina animalia bat hiltzen dizute eta kito. Otsoak ahal duen guztiari egiten dio koska, horregatik eragiten du halako krispazio soziala”.

Bere esanetan, ehiza selektiboa debekatu izanak aldrebestu du egoera: “Errepideetan egiten duzu topo otsoarekin, eta hori lehen pentsaezi-

na zen. Auto-istripuak eragiten ditu. Gizakiarekiko errespetua galdu du, atrebentzia handia hartu du”. Indemizazioak ez dira nahikoak, eta gaineratu du otsoen sarraskietan ohikoa dela kumeak txikitzea arrastorik ez utzi arte. Politika publikoak kalekumeek diseinatzen dituztela deitoratu du: “Hirikoek uste dute Serengeti izan behar dugula, natura autoerre-

gulatu behar dela. Otsoarekin enpatizatzen dute, txakurraren antza duelako, eta ehiza deabrutzen dute”.

Aitzitik, landa eremuko betidaniko kudeaketa aldarrikatu du: “Orduan bai posible zela elkarbizitza: gure arbasoek otsoa errespetatzen zuten, bazegoen halo mistiko bat, arraroa baitzen hura ikustea eta ehizatzea. Hori bai, talde gatazkatsu bat agertzen zenean, ehiztariek akabatzen zuten. Inork ez dizu esango otsoaren desagerpenaren aldekoa denik. Eskatzen duguna autonomia da, ehiza selektiboaren bidez otsoa berriro kontrolatzeko”.

Aldarrikatu du ehiztarien funtzioa basurdeen populazioa murrizteko, eta aldi berean, argudiatu du

ez dietela otsoei konpetentziarik egiten: “Ehiza-presa desberdinak ditugu: adibidez, guk adakera ikusgarriena duen orein-arra hil nahiko dugu, eta otsoak kumeak eta animalia gaixoak aukeratuko ditu”.

Mastinen lurraldea da Leon, baina Rodríguezzen esanetan txakurrak ez dira beti otsoa uxatzeko gai. “Nire begiekin ikusi dut nola antolatzen diren otsoak: batek mastinaren arreta deitzen duen bitartean, besteak artaldea erasotzen du”. Txakur bat baino gehiago izateak mantenu gastu handia eskatzen du, baita animaliak hezteko esfortzu handia ere. Bestelako neurrien bideragarritasuna zalantzan jarri du: “Abeltzaintza estentsiboa da gurea, lursail

oso malkartsuetan. 150-200 behi dituen abeltzainak ezin ditu gauero mendian bilatu eta gorde”.

Gauzak horrela, landa-eremuko herritarren ongizatea lehenestea aldarrikatu du: “Nire udalerrian umeak baino otsokume gehiago jaiotzen dira urtean. Landa-eremu-ko gizakia bai dagoela desagerpen arriskuan!”.

Bi kontakizun horiek islatzen dute Euskal Herriko atalean ere nabarmendu dugun polarizazioa, “Biologoak eta abeltzainak aurrez aurre” bezalako ohiko lerrobueriek indartzen dutena. Berriro ere, otsoen presentzia nabarmena duten lurraldeetako bestelako ahotsak topatzea izan da gure apustua. ●

Elena Galánek dio hiru artzainetako bat beti igotzen dela mendira ahuntzekin.



Asturias: ezkutuko ehizaren ergelkeria

Otsoak eta hartzak dira Cangas de Oniseko oroigarri dendetako kamiseten protagonistak. Aitortza sinboliko horren ifrentzua da bertoko jendearen ezinegona, gero eta otso gehiago bizi direlako Asturiaseko mendietan, eta gero eta sarraski handiagoak eragiten dituztelako. Datu ofizialen arabera, 53 otso-talde bizi dira Asturiasen.

Halako oroigarri denda batean lan egiten du Alejandra Blancok. Enplegu hori uztartzen du Baso Zientzietako ikasketekin eta abeltzaintzarekin: behiak dituzte bere gurasoek eta ahuntzak berak. “Nik ez dut otsoa deabrutzen, ezta mitifikatzen ere. Maite dut, animalia guztiak maite ditudan heinean: guzti-guztiek merezi dute errespetua”, azaldu du. Kanido honen taldeen “kudeaketa”ren aldekoa da: “Animaliak hil dizkit, horrek suposatzen duen guztiarekin: ahuntz bakoitzarekin eman dudatu diru, denbora eta kariño guztia, eman behar zidan esnea, ekarri behar zituen kumeak... Nire inguruan otso bakarti bat dabil, baina Asturiaseko mendebaldean egoera itzela da, zortzi bat otso-taldeak dabilta gauero bi edo hiru behi hiltzen”.

Hori bai, azpimarratu du egotia horren erantzuleak ez direla “ez otsoa ez abeltzaina”, “goian dauden horiek baizik”, alegia, politikariak, artzainaren figuraren galera sustatu dutelako: “Lehen artzainek hiru hilabete ematen zuten bordan ganaduarekin; egun abeltzainek ganadua bakarrik uz-

ten dute mendiko portuan”. Gogorra da artzain lana, ondo daki berak, izan ere egonaldi bat egin zuen borda batean, komuna eta argindarrak gabe, hotzak jota: “Behin iratzarri nintzen eta otsoa ikusi nuen nire aurpegi aurrean. A ze beldurra! Baina ni ikusita ospa egin zuen. Izan ere, eurek ere oso barneratuta daukate gizakiok dugun boterea”.

Berez gogorra den lan honen traba nagusiak administratiboak dira, bere esanetan: “Nire familiak borda utzi behar izan du, Parke Nazonalean egoteagatik baldintza pila bat bete behar zituelako. Esaterako, ezin zituen abereak eskuz jetzi. Goi-mendiko gaztandegiek ezin izan dute aurrera egin, besteak beste, Covadongako lakuetara igotzeko orduan turistei lehentasuna ematen zaielako turistei artzainen eta abeltzainon pick-up autoe aurretik”.

Turismoarekin elkarbizitzak beste albo-kalte bat dakar, mastinekin gatazkak: “Babes ona ematen dute belardi txikietan, eta baita goi-mendian ere artzaina hor badago. Baina zaunka egiten duenean ez dakizu ea otsoa datorren, auzokoaren mastinarekin borrokan dabilen, beste pizti mota antzeman duen edo turista bat”.

Hortaz, gobernu eta alderdi jakin batzuk abeltzainen interesen alde agertzeak amorru handia ematen dio Alejandrari: “Landa eremua babesten dutela diote, baina kontrakoa egiten dute: gero eta burokrazia gehiago ezarri”.

Ehiztaria da Alejandra, ehi-za-barruti batean praktikak egin ditu eta, hala ere, ez du uste eskopeta irtenbide eraginkorra denik: “Otsoa ez da espezie zinegetikoa, ez du baliorik ez elikagaiak ekoizteko ezta kirolaren ikuspegitik ere. Otsoaren ehiza onargarria ikusteko, izan behar luke milimetroan ikertua, biologo batek lagunduta, esango dizuna zein otso hil dezakezun. Bestela, bakarrik geratzen den otsoarentzat erosoagoa izango da ahuntz kumeengana jotzea sarrioren atzetik korrika egitea baino”. Saiatzen da bere inguruko abeltzainak “barrutik kontzientziatzen”, eta horretarako baliatzen duen estrategia bat da baserritarren interesen ikuspegitik enfokatzeko auzia: “Ohartarazten diet otsoak bere babes-estatusa galtzen badu, dirulaguntzak ere galduko ditugula animaliak hiltzen dizkigutenean”.

Jakin badaki Asturiasen otsoaren ezkutuko ehiza praktikatzeko dela, eta oso kritiko agertu da: “Munduko gauzarik ergelena dela uste dut. Ez dute kontzientziarik. Abere baten hanka-hezur garbi bat topatzen dutenean, otsoari botatzen diote errua zuzenean. Gizonen gorroto horren atzean ikusten dudana da basabizitzako harrapari nagusiarekiko lehia”.

Ondorioz, Alejandra bestelako estrategiak asmatzearen aldekoa da. Hurrengoa otu zaio: aztertzea ea posible izango litzatekeen, otsoen populazioak ehiza bidez murriztu baino, orkatzekin eta basurdeekin arazo handia daukaten lurraldeetara sakabanatzea, modu natural batean: “Korridore ekologiko bat irudikatzen dut, haien kabuz mugi daitezen Extremadura bezalako guneeetara”.



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik
gorako erosketetan.

